



La★Salle

GIZARTE EKINTZA

Arlep Barrutia

Dokumentu markoa Eragin soziala La Sallen

La★Salle




Dokumentu honi buruz

- Barrutiko Animazio Taldeak (BAT) egina.
- Barrutiko SHM Kontseiluak baietsia (2023ko urriak 20).
- 📍 Marqués de Mondéjar kalea, 32. 28028 - Madril.
- ✉ educacion@lasalle.es
- 🌐 www.lasalle.es
- 📘 La Salle Arlep
- 🐦 [@sallearlep](https://twitter.com/sallearlep)



Aurkibidea

1	Aurkezpena	... 3
2	Zer ulertzen da eragina esaterakoan?	... 8
3	Non gauden aztertzen dugu	... 13
●	3.1 Sentsibilizazioa GGKEetan	... 17
●	3.2 Sentsibilizazioa GHOetan	... 19
●	3.3 Sentsibilizazioa eta ikusgarritasuna ikastetxe eta unibertsitateetan	... 21
●	3.4 Boluntarioritza	... 23





1. Aurkezpena


2030 Agendarekiko konpromisoa

2000ko irailaren 8an, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) 189 herrialde kideek “Milurtekoaren Adierazpena” onartu zuten. Bertan, 2015ean milioika pertsona duintasunez bizi ahal izateko behar diren politikak egiteko konpromisoa hartzen dute.

Konpromiso haiek bete ez zirela edo partzialki bete zirela ikusita, 2015ean NBEk Garapen Jasangarriari buruzko 2030 Agenda baietsi zuen, herrialdeen arteko aliantza elkarrekin bide berri bati ekiteko, guztien bizitza hobetzeko, inor atzean utzi gabe. Horrek esan nahi du herrialdeek etxeko politiken eta nazioarteko lankidetzaren planean lortutako akordioak aplikatu behar dituztela, ekitatea eta jasangarritasuna bermatzeko. Agendak Garapen Jasangarrirako 17 Helburu ditu, pobrezia desagerraraztetik hasi eta klima aldaketaren, hezkuntzaren, emakumearen berdintasunaren, ingurumenaren defentsaren edo gure hirien diseinuaren aurrean saihestezinak diren jardueretaraino.



Helburuak lortzeak, horien jarraipena egiteak eta adierazleak hobetzeak suposatze du pertsonak mundu hobe batean bizi ahal izatea eta gero eta bidezkoagoa eta jasangarriagoa den mundu bat eraikitzen jarraitzeko tresna hobeak diseinatu ahal izatea.



Hori guztia oinarri hartuta, beharrezkoa da GJHen plan nazional bat egitea. Plan horrek bere baitan hartuko ditu ukituak izan diren politikak berriz definitzea eta identifikatzea, esparru horretan sartzen diren planak identifikatzea, erakunde koordinatzaileak izendatzea, elkarrizketa talde bat deitzea eta gizarte eragileekin, unibertsitateekin eta GKEekin lan egitea.

Beste alderdi oso positibo bat da 2030 Agendaren garapenak sareko lana dakarrela, koordinatua eta koherentea, non ahaleginak batzen diren, hainbat jarduera eremutan eta botere publikoetatik eta herritarrengandik, globaltasuna lortzeko, eskubideei dagokienez, eta eragin positiboa izan behar duela pertsona guztiengan, bereziki zaurgarrienengan.




Salletar hezkuntza-misioarekiko konpromisoa



Helburu hauek betetzeak aurrerapauso nabarmena ekarriko luke munduan pobrezia-aren eta bazterketaren aurkako borrokan, eta erabakiak hartzeko eta aldaketa sozialen alde egiteko erreferentzia bihurtu liratekeenak La Sallek bereak eginak ditu.

Hezkuntza obra desberdinen bidez (ikastetxeak, unibertsitateak, gizarte-hezkuntzazko obrak) eta GGKEen bidez, helburu horiek betetzeko eman behar diren zenbait urrats babesten eta sentsibilizatzen laguntzen dugu.

Milurteko Garapen Helburuak (MGHak) garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektu eta kanpainen parte hartu zuten, pastoraleko ekimenetan, boluntariora konpromisoetan, gure obren kudeaketa etikoan, etab. Eta, gaur egun, helburuen bigarren belaunaldiari erantzunez, GJHak, konpromiso eguneratuekin sarean lanean jarraitzen dugu.





Obra bakoitzak bere testuingurura eta ahalbideetara egokituz egiten ditu kanpainak eta proiektuak, gainerako obren ekimenak ezagutuz eta haietatik elikatuz. Erakunde gisa koordinatuta hazteko posibilitatea aitortzen dugu.

Hori dela eta, La Sallek, 2018ko abenduaren 5ean, Salletar Hezkuntza-Misiorako (SHMA-AMEL) III. Asanbladan, Eragin Sozial Plan bat sortzeko konpromisoa hartu zuen, hezkuntza obra eta GGKEen jarduera-eremuen ahaleginak, irizpideak, esperientzia eta ezagutza bateratuz.

Posibiliteate-sorta kontuan hartuta, ezinbestekoa da interes komunekoa gaiak identifikatuta eta definituta izatea erantzuna eman diezaiekegun, eta ekarpenak egiteko proposamenak ditugun arazoak aztertzea, eragin daitekeen lekuak argi izatea eta zein populaziorekin lan egitea garrantzitsua eta premiazkoa den jakitea.

Garapen Jasangarrirak Helburuak GJH





2. Zer ulertzen da eragina esaterakoan?

Mundu bidezkoago eta solidarioago batekiko konpromisoa

Eragin sozial eta politikoa aldaketa bat eragiteko gaitasuna da, eta, horretarako, benetako gizarte-eraldaketa bat lortzeko alternatibak eskaintzen ditu, mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeko eta garatzeko gure konpromisoari eusten dioten balioekin koherentea izango dena, eta premiarik handiena duten kolektiboek arreta emateko gogoetatik eta esperientziatik abiatzen dena, agindutako misioaren funtsezko zutabe gisa.




Eragin sozial eta politikoak suposatzen du, halaber, herritarrek eskubideak eta demokrazia erabiltzea giza eskubideak eta justizia soziala urratzen dituzten edo defendatzen ez duten gobernu eta administrazioen erabakien aurrean, eta guztion ongiaren babesa sustatzen ez dutenean, hau da, gizateriaren benetako esentzian kokatzen dena eta edozein motatako interesak atzean uzten dituen, eta, zehazkiago, interes politikoak, ekonomikoak edo finantzarioak.

Maila instituzionalean eta sarean beste erakunde eta antolakuntzekin lan egitea dakar, sentsibilizatzeko, ikusarazteko eta kontzientziatzeko borondate argiarekin, gizartetik, oro har, hurbil ditugun inguruneetatik, errealitatea hobetzeko helburuarekin.

Horretarako, eta hezkuntza tresna eraldatzailea dela jakinik, solidaritatea, justizia soziala eta bakea interes indibidual eta sozialen erdigunean jartzen ditugu. La Sallek giza garapenaren eta pertsona guztientzako mundu jasangarri baten sustatzaile gisa aurkezten du bere burua.

Sareko lana hirugarren sektore sozialean




Gainera, sarean lan egitea eskatzen du, Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek eta GGKEen arteko lankidetzak sustatuz, helburu bateratuak lortzeko informazio fluxu aberasgarria bultzatuz. Lan-taldeetan, batzordeetan, asanbladetan, plataformetako zuzendaritza-batzordeetan, koordinakundeetan, sareetan eta abarretan parte hartuz, erakunde politikoekin eta erabakitzeke ahalmena dutenekin hitz egiten laguntzen dugu, legedi, plan, akordio, itun eta abarren alaketan eragiteko, erakunde gisa hurbilekoak zaizkigun alderdiei buruz (haurrak, hezkuntza, pobrezia, bazterketa, boluntariotza, etab.), aurrerapena eta hobekuntza posible izan daitezten.

Gure kasuan, eragin horrek sentsibilizazioko barne-alderdi bat izango luke. Ekintza horiek, txikiak izan arren, berehalako alaketak gertatzen lagunduko lukete, eta, epe luzera, gizarte-kontzientziaren ber-diseinu bat ekarriko lukete, bai eta kanpoko beste bat ere, ikusaraztekoa eta salatzekoa, alaketak hori maila globalagoan eta modu iraunkorragoan egin dezakegun eremuen defentsan jarriko gaituena.

La Salleren funtsezko zeregina hiritartasun globalaren formazioan

Erakunde gisa, “La Sallek ezin dio uko egin hiritarren formazio zeregin erabakigarriari euren eskubideak gauzatzeko gai izan daitezen, euren eginbeharrak betetzeko, publikoa dena defendatzeko, sare soziala sendotzeko, prozesu demokratikoetan esku hartzeko, politikaz eta politika denaz interesatzeko”. (Deklarazioa Salletar Hezkuntza-Misioari buruz. 2020 95. or.).

Konpromiso sozial eta politikoaren ildo honetan, interesgarria dirudi Pere Casaldàligak, São Félix do Araguaia-ko Gotzainak (Brasil, 1928-2020) esandakoak gogoratzea: “Politika egin behar da, bai jauna, eta ezin da benetako erlijioa egin, batez ere erlijio kristaua, politika ere egiten ez bada. Dena da politika, nahiz eta politika ez izan dena. (...) Maitasunean, fedean eta iraultzan ez da posible neutraltasuna. (...) ‘Indarkeriarik eza’ esamoldeak ez du pasibotasunaren sinonimo izan behar. Iraultza bihotzean hasten da. Ez dago benetako bakerik, justizian oinarritzen ez bada. Bere egunerokoan erabat zintzoa ez denak ezin du mundua konpondu ”.







3. Non gauden aztertzen dugu

La Sallek hezkuntza obra desberdinen eta GGKEen bidez gauzatzen du bere misioa. Obra horiek, alde batetik, banaka egiten dute lan, lurralde nazional eta nazioarteko testuinguru desberdinetan kolektibo zaurgarriari arreta eskaintzeko, eta, bestetik, elkarlanean, sare eta koordinakundeen bidez, salletarrak eta ez salletarrak. Bestalde, diskurtso komunetabateratubategitea errazten dute, elkarriketa-eremuekiko eta hezkuntza- eta gizarte-politiketan eragin eraginkorra izateko.

Hirugarren sektore sozialeko plataformetan, sareetan... parte hartzea



Hainbat eremu eta espaziotako lankidetzak eta elkarriketa-sareak errazten du pertsona eta kolektibo zaurgarrienek gizartean parte hartu ahal izatea eta eskubide sozialen aldeko borroka maila indibidualean lan egiten ez den lekuetara iristea.

Sareek beren jarduera-eremua izan dezakete tokiko, erkidegoko, estatuko eta nazioarteko mailan. Bere jarduera eremu horietako estrategietan eragiten saiatzen da.

Gaur egun, salletar hezkuntza obrek eta GGKEek lan koordinatuko 100 espazio baino gehiagotan parte hartzen dute, salletarrak izan nahiz ez izan (Hirugarren Sektore Soziala...). Espazio horiek sareak, koordinakundeak, plataformak, mahaiak, konfederazioak eta abarrek osatzen dute. Horietan lan egiten da hezkuntzan, nazioarteko lankidetzan, bidezko merkataritzan, boluntariotzan, haurren eskubideetan, etxebizitza eskubidean....

Arlep Barrutian, nazioarteko lankidetzak eta solidaritzako erakundeek elkarrekin lan egiten dute Salletar GGKE Koordinakundearen bidez, gizarte-hezkuntzazko obrek Gizarte-hezkuntzazko Koordinakundearen bidez eta ikastetxeak eta unibertsitateak, kristau-hezkuntzako erakundeetan.

Eremu guztietara planteamendu bateratu bat eramaten saiatzen dira, errealitate desberdinetan ematen diren esperientzietatik abiatuta.

Ikastetxeak eta unibertsitateak gizarte-hezkuntzazko errealitatea eta GGKEena erakusten duten sentsibilizazio-gune bihurtzen dira, baita haien kanpaina eta ekintza ugari ikusarazteko bide ere, non kontuan hartzen den gizartean duten eragina.





Pertsona zaugarrientzako gizarte-ekintzako entitateak

Hezkuntza obrek eta GGKEek parte hartzen dute hainbat kolektiboren sentsibilizazioan, diskurtso partekatua sorketan eta erakunde publiko eta pribatuekiko elkarrizketetan, hala nola pobrezia, gizarteratzeari, migrazioari, aterpeari, laneratzeari, nazioarteko lankidetzari, garapenerako hezkuntzari, boluntariotzari, solidaritzari, genero-ekitateari, erlijio-artekotasunari, giza eskubideei, haurren eskubideei, bizikidetzari, kultur-artekotasunari, etxebizitzarako eskubideari eta abarri buruzko gaietan.

Kolektibo horiek dira, besteak beste, haurrak, gazteak, emakumeak, migratzaileak, helduak, etxerik gabekoak, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak eta abar. Sareko lankidetzaren bidez, giza eskubideak betetzea, pertsonen inklusioa eta duintasuna defendatzen dute, baita pobrezia murrizteko eta prebenitzeko jardura ere. Helburu horiek lortzen dira erakundearen estrategiari Garapen Jasangarriko Helburuen helmugei lotutako ekintza-ildoak gehituz.



3.1 Sentsibilizazioa GGKEetan


Barrutiko GGKEen misioa mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzea da, non pertsona guztiak, bereziki pobretuak, duintasunez bizi daitezen.

Hori posible egiteko, parte-hartze aktiborako bideak ezartzen dira, garapenerako lankidetzako proiektuen bidez, sentsibilizazio eta eragin politikoko kanpainen, boluntariora eta bidezko merkataritza sustatzearen eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen sustapenaren bidez, pobrezia-ekin, desberdintasunekin eta gizarte-bazterketarekin lotutako gizarte-arazoei erantzuna emanez.

Urtero, garapen entitateek, beste erakundeekin batera (La Salle fundazioa, Sopro, maristak eta klaretarrak), 2030 Agendan eta bertan agertzen diren Garapen Jasangarriko Helburuetan kokatutako sentsibilizazio kanpaina bat abian jartzea koordinatzen dute.



**Mundu
bidezkoagoa eta
solidarioagoa
eraikitzeke lanean
ari dira salletar
GGKEak**



Material hau ikastetxeetan lantzen da, eta hezkuntza-etapa guztietan garatzeko pentsatuta dago.

Bestalde, hitzaldiak, tailerrak eta topaketak egin ohi dira ikastetxeetan, hauetako batzuk gizarte-hezkuntzazko obren lankidetzarekin.

Gainera, administrazio publiko batzuen laguntzari esker, urtean zehar hainbat sentsibilizazio proiektu gauzatzen dira, batez ere hezkuntza obretan lantzen direnak, hainbat gairekin: bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua, jasangarritasuna, boluntariotza, justizia globala, besteak beste.

Horren adibide da Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxeak proiektua, 2011tik gauzatzen dena, eta bere helburua da Hezkuntza Elkarre osoak sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzea eta kontsumoak ekoizleengan eta ingurumenean dituen inpaktuak ezagutzea, gogoeta sustatuz eta Bidezko Merkataritza bultzatuz Kontsumo Arduratsua gauzatzeko tresna gisa.



3.2 Sentsibilizazioa GHOetan

Salletar GHOen konpromisoa zaugarritasun-egoerak ezagutaraztea da



La Salle Gizarte-Hezkuntzako Obrek (GHO) konpromisoa hartzen dute lan egiten duten pertsonen eta kolektiboen zaugarritasun-, bazterketa- eta pobrezia-egoerak ezagutarazteko. Haiekin gizarte-hezkuntza arloko esku hartze bat egiteaz gain, gizarteari jakinarazten diote egoera horiek egon badaudela eta politika publikoak sortzeko lan egin behar dugula, pertsona horiei laguntzeko eta egoera horien jarraipena saihesteko.

Sentsibilizatzeko moduak askotarikoak dira, eta obra bakoitzak, bere jarduera-eremuaren arabera, gai batzuk edo beste batzuk ezagutarazten ditu, betiere kontuan hartuta pertsonak eta haien eskubideak direla garrantzitsuenak. Aipatutako 2030 Agendaren esparruan, hainbat forotan hitz egiten da giza eskubideei buruz, hurrei, gizarteratzeari, migrazioari, parte-hartze sozialari eta abarri buruz, baita GHOen beren lanari buruz ere. Sentsibilizazio-jarduerak, zenbaitetan, beste erakundeekin koordinatuta egiten dira.



Obra batzuek estatuko eta autonomia-erkidegoko mailetako zenbait kongresutan parte hartzen dute, beste entitateekin batera, eta immigrazioarekin, boluntariotzarekin, haurren eskubideekin, GJHeekin eta abarrekin lotutako gaiei buruzko lanketa egiten dute.

Era berean, zenbait entitatek boluntariotza-azoketan parte hartzen dute hainbat unibertsitatetan, eta haurren eskubideekin lotutako hainbat gai buruzko lanketa egiten dute

Ikastetxeetako eta unibertsitateetako ikasleei zuzendutako tailerrak planifikatzen dira, kultur-artekotasunari, desberdintasun eta pobreziaren arrazoiei, migrazio-prozesuei, giza eskubideei, gizarteratzeari, bizikidetzari eta abarri buruz sentsibilizatzeko. Gainera, gai horien inguruko formazioak egiten dira adin guztietarako. Hirugarren sektoreko beste entitateekin lankidetzan, salaketa- eta intzidentzia-mobilizazioetan parte hartzen da.

3.3



Sentsibilizazioa eta ikusgarritasuna ikastetxe eta unibertsitateetan

Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizazio ekintzak egiten dira, Arlep Barrutiko Justizian, Solidaritatean eta Bakean Hezteko proiektu markoan jasota daudenak.

Gure hezkuntza proiektuak, Ikaskuntza Testuinguru Berriak (ITB), berariaz jasotzen ditu ekintza horiek inspirazio iturri funtsezkotzat eta etapa bakoitzerako diseinatutako ikaskuntza esparruen barruko jarduerak, gogoetak eta proiektuak egituratzeko ardatz gisa.

**Salletar hezkuntza obrek
eta unibertsitateek
euren espazioak baliatu
behar dituzte bizi
garen gizartearekin
konprometitzearen
garrantziaz jabetu arazteko
eta sentsibilizatzeke**

ITBren baitan sentsibilizazio proposamena aberasten da, bizikidetzarekin, erantzukizunarekin, bestearen aitortpenarekin eta ingurunearen zaintzarekin lotutako dinamikak txertatuz.


Gainera, ITBren printzipio pedagogikoetan oinarrituta, etapa guztietan tailerrak daude eta horietako ikasmaila guztietan, ikasleek bizi duten errealitatearen berri izan dezaten eta errealitate horri buruz sentsibiliza daitezen, ikaskuntzetako testuinguru barnean.



ITBren proposamen pedagogikoak esperientziak eskaintzen dizkie ikasleei, bizi diren gizartearen protagonistak sentitzeko eta aldaketa prozesuak ahalbidetzen dituzten proposamenetan parte aktiboa izateko, gizartearen hobekuntzarako.

Honi gehitu behar zaizkio GGKEek Bidezko Merkataritzako programen bidez proposatutako ekintzak eta GHOk pertsonen beren jarduera erakusteko egindako hitzaldiak eta goragoko ikasmailatan euren proiekturen batean parte hartzera gonbidatzeko egindakoak, non boluntarioak dituzten.

Bizi garen gizartearekin konprometitzearen garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta ikusgarritasuna egiteko beste modu bat sare sozialak erabiltzea da. Sare horiek erabiltzeko estrategia bateratua izateak transmititu nahi den mezua sendotzen du.



3.4 Boluntariotza

Boluntariotza salletar obren zutabeetako bat da. Zeregin boluntarioaren bidez, pertsonak sentsibilizatu egiten dira eta, aldi berean, inguruko pertsonak sentsibilizatzen dituzte, eta, horrela, komunikabideek helarazitakoez gain errealitate sozialei buruzko beste ezagutza sortzen dute.

Borondatezko parte hartzea abagune bat da gazte eta helduentzat Salletar Karisma eta Misioa bizitzeko, Anaiekin, asoziatuekin eta beste salletarrekin batera, ikuspegi altruista eta konprometitu batetik eta, bereziki, kolektibo zaurgarrienekin eta gizarte-bazterketa arriskuan daudenekin (haurrak, gazteak eta helduak).

Salletar boluntariotza sozialaren oinarrian, berezko eta funtsezko alderdia da elkarte-bizipena. Uste osoa dugu Justiziaren, Solidaritatearen eta Bakearen aldeko ekintzak mundua eraldatzen laguntzen duela.



**Boluntariotza
zaindu eta aitortu
behar dugun
altxorra da**



Boluntariotzaren zerbitzua gure gizartearen funtsezko elementutzat jotzen dugu, bidegabekeriak eraldatzeko tresna delako; izan ere, pertsona guztiei aukera ematen die, jatorria, erlijioa, adina, sexua, egoera soziala edo ekonomikoa kontuan hartu gabe, premia handiena duten pertsonen euren denbora, talentua eta energia libreki eskaintzeko.

Obra ezberdinek boluntariotza egiteko espazioak eskaintzen dituzte, bai tokian-tokian, bai lurraldean, bai nazioartean. Boluntario oro altxor bat da, eta aukerak eskaintzen zaizkio ikasteko, trukaketak egiteko, elkarrizketarako espazioak sortzeko eta beste errealtate batzuetara hurbiltzeko. Aurreiritziak eta estereotipoak desmuntatzeko aukera ere bada, eta, horretarako, pertsonekin harremanetan jarritz, erantzuna ez duten premiei erantzuten nola lagundu identifikatu behar da. Halaber, parte-hartze sozialerako mekanismoak ezagutzea eskatzen du, aukeraberdintasuna bilatzen duten politika publiko hobeagoetan eragin ahal izateko.

La  **Salle**

GIZARTE EKINTZA

Arlep Barrutia





www.lasalle.es